

GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA

LAN AKADEMIKOETAN ADIMEN ARTIFIZIALEAN OINARRITUTAKO APLIKAZIO ETA PLATAFORMEN ERABILERA AIPATZEKO GIDA-DOKUMENTUA

Adimen Artifizialean (aurrerantzean AA) oinarritutako tresnak modu bizkorrean jarri dira eskuragai eta eragin nabarmena izango dute arlo akademikoko praktika ezberdinetan. Beste arlo ugaritan bezala, baliabide teknologikoak eskura jarri dira hauen gaineko hausnarketa etiko eta kritikoa egiteko aukerarik izan gabe. Honen gaineko ikuspegi desberdinak egon daitezke, GRALaren ezaugarriak ere kontutan hartuta: zenbaiten AA erabiltzea ez da onargarria edo egokia izango, beste batzuetan bai. Eztabaida hori garatzen den bitartean, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean gida hau proposatzea erabaki da, GRALerako AA erabiliko balitz, erabilera horren izaera iruzurtia edota plagioa saihesteko.

Gida honek ez du helburu AA erabiltzearen aldeko ez kontrako gomendiorik ematea. Ezta ere AA nola erabili ote daitekeen erabaki edo ebaztea. Izan ere, AAK ezin du inondik ere bete ikasleak Graduan zehar garatu ez dituen gaitasunen hutsuneak. Hala ere, ikasleak AA erabili nahiko balu, erabilera hori aitortzeko jarraibide batzuk ematen ditu. Hau da, horren helburua da AAREN erabiltzaileen eskuetan aitorenaren gaineko marko bat jartzea.

1. AAREN AIPAMENAK JASOTZEKO ARGIBIDEAK

AAko tresna eta plataforma ezberdinak badaude ere, hemen ChatGPTren erabilera azalduko dugu adibide gisa. AAKo beste tresna bat erabiltzekotan jarraibide hauek egokitzea gomendatzen dugu.

Gida honi begira, hiru modutan sailkatuko genuke AAREN erabilera, GRALean aurkeztutako testu, irudi edota ikus-entzunezkoen ekoizpenean duen eraginaren arabera.

Erabilera mota	Ezaugarriak	Testuan txertatutako aipamena
Sortzailea	GRALeko edukiak AAREkin sortu dira, zuzenean ala moldaketa/berridazketarekin	"Gizarte-sareetako komunikazio-estrategiak erabakigarriak dira gaur egun" (OpenAI, 2023)
Laguntzailea	GRALeko edukiak itzultzeko edo berridazteko erabiltzen denean	"Bat gatoz, egun gizarte-sareetako komunikazio-estrategiak erabakigarriak direla esaten denean" (berridazketa; OpenAI, 2023)
Bestelako tresna bezala	GRALean lan egiteko erabili denean, informazioa prozesatu edota bilatzeko	Kasuan kasuko erabakiak hartu beharko lirateke

a) Lehen erabilera: AA tresna sortzaile gisa

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean, aipamenak jasotzeko APA (American Psychological Association) estiloa erabiltzea gomendatzen da eta horretarako [Gizarte eta komunikazio zientzietan bibliografia eta aipuak txertatzeko moduari buruzko gidaliburua](#) dago eratua (Martínez Palacios eta Legarreta Iza, 2017). AAren erabilerak zenbait berezitasun baditu ere, APAko blogean bertan gai honi buruz [Timothy McAdook idatzitako sarrera batetik](#) abiatzen gara hemen gomendioak egiteko (McAdoo, 2023). Artikulu horretan ChatGPTrekin osatutako testu baten zita edo erreprodukzioa aipatzeko jarraibideak ematen ditu, baina eredu hau ikus-entzunezko beste eduki batzuk zein beste adimen artifizialekin osatutako bestelako eduki batzuk txertatzeko baliagarria izan daiteke ere.

Beste edozein informazio-iturrira jotzen dugunean bezala, testuaren barruan adimen artifizialaren iturriari erreferentzia egin behar zaio –dagokionean komatxoekin— eta amaierako erreferentzien atalean honen gaineko informazioa osatu behar da bestelako baliabide bibliografikoekin batera (Martínez Palacios eta Legarreta Iza, 2017: 8-12).

Era honetako txatek daukaten berezitasun bat da, erreferentzia bibliografikoak ez bezala, adimen artifizialak ondutako materiala egindako eskaeren (*prompt*-en) arabera diferentea dela. Ondorioz, eskaera edo *prompt* horien erreferentzia sartu beharko litzateke. Hemen hiru modu proposatzen ditugu, informazio aipatzeko:

- 1) **AAri eskatutako *prompta* testu barruan adierazten denean**, ez da informazio hori osatu beharko eta zuzenean txertatu ahalko da. McAdook (2023) ondoko adibidea aurkezten digu:

Testu barruan:

“Eskumako eta ezkerko burmuinaren bereizketa erreal ala metafora ote da?” ChatGPTri galdetzen diozunean, bi hemisferioen arteko bereizketa nolabaiteko espezializazioari erantzten diola onartzen badu ere, “pertsonak ‘ezker-burmuineko’ edo ‘eskuin-burmuinekoen’ artean bereiztea sinplifikazio eta mito hedatutzat har daiteke” (OpenAI, 2023).

Erreferentzia:

OpenAI. (2023). *ChatGPT* (Martxo, 14. bertsioa) [Hizkuntza Eredu Handia, LLM]. <https://chat.openai.com/chat>

- 2) **AAri eskatutako *prompta* testuan agertzen ez denean**, horri erreferentzia egin behar zaio GRALean zehar (McAdoo, 2023). Modu horretan, bai tutoreak eta bai epaimahaikideek ere txat osoa irakurri ahal izango dute eranskin luzerik gabe. Horretarako bi modu proposatzen ditugu, bata eranskinak erabiliz (2.a) eta bestea saioak esteka bidez partekatuz (2.b)

2.a) Edukiak osatzeko *promptak* dokumentu atxikietan txertatuz. Hemen ere McAdook (2023) emandako adibidea jasotzen dugu, moldatua oraingoan,

Testu barruan:

Jakina, “burmuinaren eskualde ezberdinek elkarrekin dihardute prozesu kognitibo ezberdinak aurrera eramateko” eta “eskualde ezberdinen espezializazio funtzionala aldatu daiteke esperientzia eta ingurumeneko faktoreei erantzunez” (OpenAI, 2023; transkribapen osorako ikus A eranskina).

Erreferentzia:

OpenAI. (2023). *ChatGPT* (Martxoa, 14. bertsioa) [Hizkuntza Eredu Handia, LLM]. <https://chat.openai.com/chat>

Eranskinean, transkribapen osoa jarri beharko litzateke, testuan txertatutako emaitza hori nondik datorren arakatzeko.

Eranskinen luzera murriztu nahi bada, ChatGPT bezalako aplikazioek *txatetan* sortzen dituzten saioak partekatzeko aukera dago. Txatean izandako interakzio bakoitza, beste edozein artikulua, liburu edota bestelako material gisa testuan aipatuko genuke, eta azken zerrendako erreferentzian irakurleak eskura izango luke elkarrizketa osoa ere irakurri ahal izateko.

2b) Edukiak osatzeko *promptak* esteka baten bitartez partekatuz (Morales, 2024). McAdook (2023) emandako adibidearen kasuan honela jokatu genuke,

Testu barruan:

Jakina, “burmuinaren eskualde ezberdinek elkarrekin dihardute prozesu kognitibo ezberdinak aurrera eramateko” eta “eskualde ezberdinen espezializazio funtzionala aldatu daiteke esperientzia eta ingurumeneko faktoreei erantzunez” (OpenAI, 2023)

Erreferentzia:

OpenAI. (2023). *ChatGPT* (Martxoa, 14. bertsioa) [Hizkuntza Eredu Handia, LLM]. <https://chat.openai.com/share/b2943d49-f887-4a93-8a27-388889ec4bfa>

Kasu honetan, partekatutako estekako elkarrizketa osoan egon beharko luke testuan txertatutako atala. Elkarrizketa gehiago sortu behar izatekotan, hauek dokumentu bereizi bezala aipatu beharko lirateke: “(OpenAI, 2023a)”, “OpenAI, 2023b)”...

b) Bigarren erabilera: AA tresna laguntzaile gisa

Testuak itzultzeko erabiltzen denean, aipatu beharra dago testuan zehar. Hitzez hitz jaso baldin bada atal bat, komatxo artean aipatu beharko litzateke. Baita jatorrizko testuren baten itzulpena bada jatorrizko testuaren aipamena ere bai.

Testu barruan:

“Testuaren gorputzean zitazioa eginez, idazleak azaltzen du beste ikertzaile batzuen alde aurreko lanek inspiratu edo arrazoitu dutela haren idazketa. Hala, ariketa honen bidez, testua nola eraiki den eta bertan argudiatu eta azaldutako ideiak irakurtzen dituenak uler ditzake.” (Martínez Palacios eta Legarreta Iza, 2017; itzulpen automatikoa, Elhuyar 2024)

Erreferentzia:

Elhuyar. (2024). *Elia [itzultzaile neuronal: ingelesetik euskarara]* <https://elia.eus/itzultzailea> (Kontsulta eguna: 2024/04/29)

Martinez Palacios, J., & Legarreta Iza, M. (2017). *Gizarte eta Komunikazio Zientzietan bibliografia eta aipua txertatzeko moduari buruzko gidaliburua*. UPV/EHU [Online], eskuragarri hemen: https://www.ehu.es/documents/1760370/2932796/guia_referencias_eusk_cast+05_09_2017.pdf [Kontsulta eguna: 2024/04/29]

c) Hirugarren erabilera: AA aholkularitza tresna gisa

Gomendio hauetatik haratago, bestelako formulak ere erabili daitezke, betiere norberak egindako lana eta adimen artifizialaren laguntzaz egindakoa bereizteko. Esaterako, AA erabiliko balitz aholkularitza- eta kontsulta-tresna gisa ondoko egoera hauetan,

- Idazteko, hau da, ortografia, gramatika edo estilo-zuzenketak egiteko.
- Informazioa bilatu, bildu eta prozesatzeko.
- Ikerketa-prozesuan datuak aztertzeke, datuak biltzeko, ikerketa-tresnak diseinatzeko, bestelako edukiak antolatu eta egituratzeko, etab.

Kasu horietan guztietan komenigarria da dagokion atalean azaltzea, aurrekari teorikoak, metodologiako edo datu azterketa, besteak beste.

Beste batzuetan, ordea, AA erabili bada baina ez badu edukietan eragin zuzenik, informazio iturri osagarri moduan erabili delako edota informazio hori azkenean erabili ez delako, kontsultatu diren beste hainbat iturri bezala, ez da beharrezkoa aipatzea.

2. AAREN ERABILERA, PLAGIOA ETA IRUZURRA

Gida honetan AA aipatzeko ereduak planteatzen da, plagio eta iruzur egoerak saihesteko. GRALak ikasleak egindako lana izan behar du. [EHU/UPVko Plagioa eta onestasun akademikoa](#) dokumentuan jasotzen den bezala, informazio-iturrien erabilera desegokia plagiotzat har daiteke. Adimen artifiziala informazio-iturria den neurrian, horren erabilera plagiotzat har daiteke ere modu desegokian erabiltzen bada. beste informazio-iturrien erabilera desegokia plagiotzat hartu daitekeen modu berean. Aipatu dokumentuan ondokoak dira aipatzen diren erabilera desegokiak:

- “Lan bat kopiatzea eta norberak egin bezala aurkeztea: berdin dio lana osorik kopiatu bada edo zati bat baino ez. Lanak egile eskubideak baditu, berdin dio zatitxo bat edo zati handia kopiatu izana, berdin-berdin da plagioa.
- Lanean testu bat txertatzea egilearen aipamenik egin gabe.
- Lanean beste batzuen esaldiak, paragrafoak edo ideiak sartzea, jatorria edo egilea aipatu gabe.
- Epaien paragrafoak edo esaldiak kopiatzea jatorria adierazi gabe.
- Testu bat edo ideia bat parafraseatzea modu ez onargarrian egilea aipatu gabe.
- Beste batek egindako lana erostea eta norberak egin bezala aurkeztea.
- Norberak inoiz erabilitako lan bat berriz aurkeztea. Hori “autoplagioa” da.
- Multimediako lan bat kopiatzea (audioa, bideoa, web gunea...), musika, grafiakoak... egilea aipatu gabe.” (ehuBiblioteka, 2023)

Beraz, GRALa aurkezten ari den ikasleak AAREN bitartez egindako testu edo ikus-entzunezkoak berak eginak bezala aurkeztuko balitu —hauen esaldi, paragrafo edo ideiak kopiatuz edo parafraseatuz— plagio baten aurrean egongo ginateke.

Ondorioz, plagio egoerak ekiditeko, bestelako informazio-iturri bat erabiltzen denean bezala, aipamen bibliografikoa egitea gomendatzen da. Zentzu horretan, gure Fakultateak American Psychology Associationek (APA) proposatutako estilo-gida jarraitzeko gomendioa egin du (ikus [Gizarte eta Komunikazio Zientzietan bibliografia eta aipua txertatzeko moduari buruzko gidaliburua](#)). Adimen Artifiziala erabiliz gero, erabilera hori adierazteko modua, funtsean eta idazki honetan esan bezala, beste baliabide bibliografikoak aipatzeko moduaren antzerakoa izan daiteke.

ERREFERENTZIAK

ehuBiblioteka (2023). “Plagioa eta onestasun akademikoa”. *Euskal Herriko Unibertsitatea [Online]*, eskuragarri hemen: <https://www.ehu.eus/eu/web/biblioteka/plagioa-eta-onestasun-akademikoa> [Kontsulta eguna: 2024/04/29]

Martinez Palacios, J., & Legarreta Iza, M. (2017). *Gizarte eta Komunikazio Zientzietan bibliografia eta aipua txertatzeko moduari buruzko gidaliburua*. UPV/EHU [Online], eskuragarri hemen: https://www.ehu.eus/documents/1760370/2932796/guia_referencias_eusk_cast+05_09_2017.pdf [Kontsulta eguna: 2024/04/29]

McAdoo, Tymothy (2023), “How to cite ChatGPT”, *American Psychological Association [Online]*, eskuragarri hemen: <https://apastyle.apa.org/blog/how-to-cite-chatgpt> [Kontsulta eguna: 2024/05/29]

Morales, Jordi (2024). “Aplicación de ChatGPT y GPT-4 para las Ciencias Sociales”. *Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak antolatutako hitzaldia*. Leioa, urtarrilak 17 eta 18.